





ikusimikusi

HAUR ETA GAZTE LITERATURA FESTIBALA

SARA



BIZIKI
GOXATU,
OSOKI
MAITATU
2026



ikusimikusi.eus



ZER DA IKUSI MIKUSI?



IKUSI MIKUSI proiektua euskara hutsean den HAUR eta GAZTE LITERATURA FESTIBALA da. 2021-ean izan zen lehen edizioa. Aurten, seigarren edizioa ospatuko dugu, SARA herrian, urriaren 9a eta 10a.

Azkenean IKUSI MIKUSIk euskarari, haur eta gazte literaturari premiazko tokia eskaintzen dio, Sara herrian, bi egunez : eskolen eta profesionalen eguna urriaren 9-an, eta familien eguna urriaren 10-ean.

ZENDAKO IKUSI MIKUSI?

Euskal Haur eta Gazte Literaturari lehio berri bat zabaltzeko nahi dio IKUSI MIKUSIk. Ekitaldi honek, gizartean dagoen eskas eta behar bat betetzen du.

Euskal herri osoko ikasleak eta profesionalak (eskolen eta profesionalen egunean), eta jendar-tea (familien egunean), elkartu nahi ditu, euskaraz den Haur eta Gazte Literaturaren inguruan : iparraldea, hegoaldea eta Nafarroa.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai altzarien aldetik, espazioaren antolaketa aldetik, baita ere jarduerak eta programatutako ikuskizun eta tailerren aldetik, adinen arabera.

IKUSI MIKUSIREN HELBURUAK

- Euskara hutsean, plazer eta gozamenez beteriko egun osoko esperientzia paregabea eskaintzea, haur eta gazte literaturaren inguruan, ikasleei, familiei eta euskal herritarrei.
- Euskal haur eta gazte literatura, gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusietako bat plaza-jalgitzea eta sustatzea, eskolako gazteei, profesionali eta publiko orokorrari hobeto ezagutzera emateko.
- Ume txikiak, haurrak eta gazteak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta idazteko aukerak ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.
- Familian, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi ditzaten, albumek eskaintzen dituzten irakurketa eta idazketa jolasei esker.
- Euskal herri lurralde osoan, euskal haur eta gazte literaturarekin lotura duten egitura profesionalak elgar ezagutzea eta inplikatzeko.

URRIAK 9, OSTIRALA

ESKOLEN ETA PROFESIONALEN EGUNA

ESKOLEN EGUNA:

- 1 200 ikasle euskal herri osotik etortzen dira.
- Ikasle bakoitzari 15€-ko bono bat eskaintzen zaio, gustukoa duen liburua eros dezan. Haur bakoitza etxera sartzen da EUSKAL LIBURU BATEKIN! Sekulako eragina dauka ekintza hunek : umeei dute behingotz BERAIEK liburua hautatzen, eta IKUSI MIKUSin bizitako guztia bizi-oroitzapen bilakatzen zaie. Ekintza hunekin, hazi garrantzitsuak ereiten dira gure euskal haurren baitan.
- Eskola guziek aurretik idatz edota lan grafiko bat sortzen dute.
- Obra guztien erakusketa antolatua da bi egunez Sarako plazan.
- Aurten, tailer guztiak idazle eta ilustratzaileekin zuzeneko topaketen inguruan antolatuak dira.
- Kanaldude telebista platoan, ikasleek sortutakoak aurkezten dituzte.
- Ikuskizunak, tailerrak eta animazioak egun osoan, ikasleen adinari egokituak eskainiak dira.

PROFESIONALEN EGUNA:

IKUSI MIKUSI festibalak BILKETA eta GALTZAGORRIekin elkarlanean, haur eta gazte literaturaren berezitasunak eta erronkak ulertzeko egun profesionala eskaintzen du, aurten umorea ardatz nagusia.

Goizean, Elise Dileten eskutik Haur eta Gazte Literatura berritasunen aurkezpenarekin hasiko da eguna.

Ondoren, Asun Agirianoren eskutik umorearen inguruko album eta liburuen itzulua egingo da. Azkenik, Juan Kruz Igerabiderekin saio praktikoa batean murgilduko dira profesionalak.

Eguerdian eta arratsalde hasieran, parte-hartzaileek eguneko ikuskizun zein tailerrak hurbiletik bizitzeko edota bazkari batez gozatzeko aukera ukanen dute.

Eguna bukatzeko, Asisko Urmenetak mahai-ingurua animatuko du, KANALDUDEk zuzenean grabaturik eta emititurik.

Gaia : umoreak haur eta gazte literaturan duen tokia.

Parte-hartzaileak, hainbat idazle, kondalari eta profesional : Ixabel Agirresarobe, Josiane Valencia Aguerre , Unai Iturriaga eta Asun Agiriano.


Euskal haur eta gazte literatura munduko eragileentzat egun aberasgarria, eta dudarik gabe, biziki alaia !



URRIAK 10, LARUNBATA: FAMILIEN EGUNA

IKUSKIZUNAK 6€ | BESTE GUZTIA DOHAINIK

10:00	11:00	12:00	13:30	14:00
IPUIN KONDAKETA Liburuzainak TAILERRA '30 min 8 Mediateka 10. orrialdea	BABES Lagunarte eta Oreka TX IKUSKIZUNA '40 min 2 Telebista gunea 6. orrialdea XoOoo ! Josiane Valencia-Aguerre TAILER - TOPAKETA '45 min 5 Keinu gela 11. orrialdea GUTUN BAT MAITE DUZUN HORI Yolanda Arrieta TAILER - TOPAKETA '45 min 9 Larrun gela 14. orrialdea IRUDIEN BIDAIA IRRI ARTEAN Asisko Urmeneta TAILER - TOPAKETA '45 min 7 Suharriaga behera 15. orrialdea	LIBURUTIK PLAZARA ! Pontx eta Kiki IKUSKIZUNA '45 min 6 Sarako Plaza 8. orrialdea	LOALDI MUSIKALA Paxkal Indo KONTZERTUA '30 min 11 Parrokia gela 10. orrialdea MAKILAKIXKI Maddi Zubeldia & Bernadette Iratzoki IKUSKIZUNA '45 min 1 Lurberri 7. orrialdea	NIK ERE NAHIKO NUKE!... Aitziber Alonso TAILER - TOPAKETA '45 min 11 Parrokia gela 11. orrialdea



+ 0 URTE

+ 6 URTE

+ 3 URTE

+ 11 URTE

15:00	16:00	17:00	18:00	ETENGABE
AMONA TOMAXA Ixabel Agirresarobe TAILER - TOPAKETA '45 min 10 Olhain gela 14. orrialdea	BABES Lagunarte eta Oreka TX IKUSKIZUNA '40 min 2 Telebista gunea 6. orrialdea	XoOoo ! Josiane Valencia-Aguerre TAILER - TOPAKETA '45 min 5 Keinu gela 11. orrialdea	PEZTAKLA Pirotek IKUSKIZUNA '40 min 6 Sarako Plaza 9. orrialdea	TXONTXONGILO ERRALDOIA Kilika Konpainia Herri osoan 15. orrialdea
IRUDIEN BIDAIA IRRI ARTEAN Asisko Urmeneta TAILER - TOPAKETA '45 min 7 Suharriaga behera 15. orrialdea	MAKILAKIXKI Maddi Zubeldia & Bernadette Iratzoki IKUSKIZUNA '45 min 1 Lurberri 7. orrialdea			ESKOLEN ERAKUSKETA Euskal Herriko Ikasleak 6 Sarako Plaza 16. orrialdea
				LIBURU AZOKA Argitaletxeak 3 Kiroldegia 16. orrialdea
				ÑIÑIEN GUNE BEREZIA 11 Parokia Gela

BABES

Lagunarte eta Oreka TX

Abestu babesteko eta babestu abesteko.

Hori da gure haria, hari hauskorra gizakiak elgar poliki lotzeko.

Begiratu, entzun, ibili, bildu, eraiki edozein momentuan, edozein lekutan, edozein izaki zaintzeko.

11:00 & 16:00

+ 0 urte

2 | Telebista gunea

6€

'40 min

lagunarte.org
orekatx.eus



MAKILAKIXKI

H-EDEN | Maddi Zubeldia eta Bernadette Iratzoki

Makilakixki ipuin herrikoian oinarrituta, Maddi Zubeldiak haurrei zuzendutako antzerki musikatua sortu du, Ziburuko arrantzale familia baten istorioa kontatzen duena, umorea eta abenturak nahastuz. Istorioak bidaiak, lanak eta etxera itzultzeko nahia aipatzen ditu, modu alaian kontatua.

13:30 & 16:00

+ 3 urte

1 | Lurberri

6€

'45 min



LIBURUTIK PLAZARA!

Pontx eta Kiki

Pontx eta Kiki lagun onak dira eta bakoitza dabil bere alorrean jolasean. Plazan elkartu ondotik Ikusi Mikusin, liburu desberdinak zabaldu eta bertako abenturetan murgiltzeko gonbita luzatzen dizuete. Hain ezagunak diren liburuetatik abiatuta, sudurgorriak liburu barruko abenturak biziko ditu musika, dantza, magia eta umorea bidelagun izanki. Nola bihurtzen dira ipuinak egi? Nola murgiltzen gara liburuaren barnean? Pontxek eta Kikik ederki dakite hori...

12:00

DENENTZAT

📍 6 | Sarako Plaza

🎫 6€

🕒 '40 min

horkonpontx.eus



PEZTAKLA

Diabolo eta Brikolo

Diabolo (Arnaud Vidal) karrikako artista da... eskez bizi da, bere artea emanaz europako plaza guzietan gauero: eskuketan ari da... suarekin ! magia, makilak, diaboloa, bolak... hori guzia sutan... ...Erraten du mutua dela (diru gehiago irabazteko eske ari delarik!)... Langile baten bila ari dela, iragarkiak ezarri ditu xoko guzietan... Brikolok (Paxkal Indo) erantzunen du... Eta...

Pirotek kooperatibaren ekoizpen bat... Sua nagusi...

18:00

DENENTZAT

📍 6 | Sarako Plaza

🎫 6 €

🕒 '40 min



Kondaketa

IPUIN KONDAKETA

Sarako liburuzainak

Mediatekan, liburuzainek ttiki-ttikientzat egokitutako liburu goxoak irakurriko dituzte, aurtenko gaiari loturik: "Zerk irriarazten zaitu ?" Une lasaia eta atsegina denendako !

10:00

● + 0 - 6 urte

📍 8 | Mediateka

🎫 Dohainik

🕒 '30 min



Kontzertua

LOALDI MUSIKALA

Paxkal Indo

Haundi ala ttiki, goxoki etzanda edo eserita, entzun eta gozatu : zuzenean musikaren bidez bidaia eder eta goxo bat biziko duzue.

13:30

● + 0 urte

📍 11 | Parrokia gela

🎫 Dohainik

🕒 '40 min



XoOoo!

Josiane VALENCIA-AGUERRE

Tailerra
Topaketa

XoOoon haur joko kantu albuma naturaren inguruko 11 kantu alairekin osatua da. Tailer honetan, haurrek kantuen, erritmoaren eta erhi-joko musikatuaren bidez euskararekin jotatuko dute. Liburua eta bere unibertsoa deskubrituz, hitzak, doinuak eta irudimena partekatuko dituzte.

11:00 & 17:00

+ 2 urte

5 | Keinu gela

Dohainik

'40 min

XoOoo!



NIK ERE NAHIKO NUKE!...

Aitziber Alonso

Tailerra
Topaketa

« Nik ere nahiko nuke mango bat » liburua abiapuntu hartuta, album ilustratu txiki bat sortuko dugu. Animalia bat aukeratu eta abentura labur bat asmatuko dugu: pertsonaiaren aurkezpena, gertakizun bat eta amaiera. Azkenik, liburuaren azala eta izenburua ere sortuko ditugu. Horrela, album ilustratu baten oinarriak ezagutuko ditugu.

14:00


+ 6 urte

11 | Parrokia gela

Dohainik

'45 min





**INFO
GUEA**

**HEMEN IKUSKIZUNENTZAT
TXARTELAK ATZEMANEN
DITUZUE !**



**TAILERRA
ETA
IKUSKIZU**



RAK
ZUNAK

SARA HERRI GUZIAN IRAGARKI
TAULA ETA GEZIAK ATZEMANEN
DITUZUE.

SARA

AMONA TOMAXA

Ixabel Agirresarobe

Tailerra
Topaketa

Ilustrazio bana erabiliz talde txikietan istorio laburrak sortuko ditugu; deskribapena, narrazioa, onomatopeiak eta istorioaren tonua landuz, bakoitzak bere kontakizuna partekatuko du, eta saioa ipuin labur baten kondaketarekin bururatuko da.

15:00

+ 6 urte

10 | Olhain gela

Dohainik

'45 min



GUTUN BAT MAITE DUZUN HORI

Yolanda Arrieta

Tailerra
Topaketa

Maite dugun norbaiti idatziz gauzak kontatzen arituko gara. Maite dugun hori izan daiteke pertsona, aberea edo landarea. Ezaguna nahiz ezezaguna. Mundukoa nahiz ametsetakoa. Gure gauzak idatziz kontatzea izango da jolasa. Arkatzez, paper txikian.

11:00

+ 8 urte

9 | Larrun gela

Dohainik

'45 min



IRUDIEN BIDAIA IRRI ARTEAN

Asisko URMENETA

Irudiaren aroan bizi garela ezin uka, baina...Ez ote da betidanik hala izan? Historiaurretik AArro honetara arte, irudiak markatzen digu gure bizitza, nahiz eta gu ez beti ohartu. Bidaian abiatuko gara historian gaindi, umorea lagun, adierazpide honen garrantziaz jabetzeko.

11:00 & 15:00

+ 11 urte

7 | Suharriaga beheko gela

Dohainik



'45 min



TXONTXONGILO ERRALDOIA MUSIKAN Kilika Konpainia

Sara herri osoan

Txontxongilo erraldoia Sara gaindi ibiliko da, egun osoan. Liburuz kargatuta, musikak alaiturik, erraldoi hunek irudimen mundura eramango gaitu.



HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZOKA

Ikusi Mikusi festibalaren bihotza zalantzarik gabe bere liburu azoka da. Euskal Herri osoko argitaletxeak elkartzen dituen plaza berezia da gurea, Haur eta Gazte Literaturari erabat dedikatua eta ehuneko ehun euskaraz pentsatua.

Zazpi herrialdeetako argitaletxe nagusiak etorriko dira Sarara, haien azken, altxor klasikoak eta sormen lan berrienak eskaintzera. Haur, gazte, guraso zein profesionalendako aukera paregabea izanen da literaturaren ekosistema bertatik bertara ezagutzeko, liburu artean amesteko eta euskarazko irakurzaletasunari leiho bat irekitzeko. Etorri, dastatu, irakurri eta eraman euskarazko sormena etxera!

HAURREN ERAKUSKETA

Eskolen egunean parte hartzen duten haurren erakusketa. Ikastetxeetan aitzinetik landua, «Zerk irriarazten zaitu?» gaiari buruz.





MILESKER GURE PARTAIDEEI!



*La signature basque
des volailles gourmandes*

1 route de St Pée sur Nivelle - 64250 Souraie - France
☎ 05 59 93 83 20 ☎ 05 59 93 81 76

FR
64 527 003
CE



Ithurbide

ITURGINTZA – BEROGINTZA – ENERGI BERRIZTAGARRIAK

INFORMAZIO OROKORRA

IKUSI MIKUSI, euskal haur eta gazte literatura festibala, seigarren aldikotz SARA herrian ospatuko da. Urriaren 9a, ostirala, eskola eta profesionalen eguna izango da, eta urriaren 10a familien eguna.

Azokaren sarrera, tailerrak, mintzaldiak eta liburu aurkezpenak DOHAINIK edo URRIRIK dira.

IKUSKIZUN sarrera bakoitzak 6€ balio du.

Txartelak aurretik erosten ahalko dira gure webgunean : ikusimikusi.eus.

Bestela, egunean bertan, txartelak erosten ahalko dira Sarako plaza nagusian, gure infogunean.

Orduan KASU ! Diruz edo efektiboan bakarrik ordaintzen ahalko da.

Ttipittoen xokoa +0 urte Parrokia gelan (11mapan) atzemanen duzue.
Gune hori ñiñiendako proposatua da.



FRANCAIS - CASTELLANO

● Français

IKUSI MIKUSI est l'unique FESTIVAL LITTÉRATURE JEUNESSE intégralement en langue basque, regroupant l'ensemble de la société basque de part et d'autre de la frontière. La première édition a eu lieu en 2021 et la sixième édition se tiendra les 9 et 10 octobre prochains.

Pendant deux jours, l'occasion de vivre une expérience culturelle riche en langue basque est offerte à tous les participants, avec toutes les déclinaisons possibles à partir de la littérature jeunesse : ventes d'albums et d'ouvrages littéraires, rencontres avec les auteurs-illustrateurs, spectacles vivants, ateliers, tables rondes, débats, etc...

La journée du vendredi est dédiée aux scolaires (plus de 1100 élèves de toutes les écoles primaires et collèges de l'ensemble du pays basque) et aux professionnels. La journée du samedi est dédiée aux familles.

L'entrée au Salon est gratuite, ainsi que tous les ateliers, les présentations d'ouvrages, les tables rondes. Seule l'entrée aux spectacles est payante, au prix de 6€.

● Castellano

IKUSI MIKUSI es la única FERIA DE LITERATURA INFANTIL y JUVENIL totalmente en euskera que reúne a toda la sociedad vasca de ambos lados de la frontera.

La primera edición tuvo lugar en 2021 y la sexta edición se realizará los días 9 y 10 de octubre 2026.

Durante dos días, la literatura infantil y juvenil vasca se pone de relieve en todo el pueblo de SARA, con todas sus variantes posibles: venta de libros y obras literarias, encuentro con autores-ilustradores, espectáculos, talleres, mesas redondas y debates, etc...

El viernes está dedicado a los colegios (más de 1.100 alumnos de todas las escuelas primarias y secundarias del País Vasco) y a los profesionales. El sábado está dedicado a las familias.

La entrada al Salón, así como a todos los talleres, presentaciones, mesas redondas, etc... es gratuita. Sólo se pagan las entradas a los espectáculos, al precio de 6 €.

MILESKER GURE PARTAIDEEI!





BRICOMARCHÉ
MAISON - JARDIN

 Collectivité
service
SOLUTIONS POUR LE BUREAU



MILESKER GURE PARTAIDEEI!

E.Leclerc 
URRUGNE • ST-JEAN-DE-LUZ





Herriko Etxea
64 310 SARA

+(33) 6 98 12 36 50
ikusimikusi@gmail.com
www.ikusimikusi.eus

SARA

FESTIBALAREN 6. EDIZIOAREN ANTOLAKETA



Herriko Etxea
64 310 SARA

+(33) 06 98 12 36 50
ikusimikusi@gmail.com



Zemoria, 25-behea
20013 Donostia

+(34) 943 471 487
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus



Herriko Etxea
64 310 SARA

+(34) 05 59 54 20 28
kultura@sare.fr



Polígono Ezkabarte, calle K, 31
31194 Arre (Navarra)

+(34) 948 326 535
web@pamiela.com

PARTAIDEAK



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



Ekin. Zaindu. Bizi.



LIZEOA



ESKERRAK

Aurten ere, IKUSI MIKUSI plazara jalgiaztzen duten guztiak BIHOTZETIK ESKERTZEN DITUGU!
Hala nola Sarako herria eta bere langile tekniko guztiak, herriko elkarten bolondresak, eta gaineratiko laguntzaile guztiak!

